


guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

LEHEN PAUSOAK





Josefina Arregi klinikan ariketak egiten. UTZITAKOAK

"Zerumuga txertoa da"

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoan gaur egun ospitale gunea besterik ez dago martxan. Sartu diren paziente batzuk COVID-19a zuten, baina barruan ez dute inor kutsatu. Haien martxaren berri eman digu mediku zuzendari Barbara Perezek

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Noiz hasi zineten neurriak hartzen?
Martxoko bigarren astean sendeen bisitak mugatzen hasi ginen. Aldi berean, eguneko zentrokoei eta kanpo unitateetan dauden pertsonen ez etortzeko aholkatu genien. Alarma-egoerak ekarri zuen eguneko zentroen itxiera. Azkenik, guztiak ixtea erabaki genuen. Behar beharrezkoa zen bakarra, ospitale gunea zen.
Ospitalean zein neurri hartu dituzue?
Hirutan banatu genuen. Koronabirus aldean COVID-19a duten gaixoen aldea, koronabirus ga-

beko aldea eta prebentzio aldea, koronabirusarekin ustez gaixo dauden pazienteak daude bertan.
Zergatik banaketa?
Infekzio-gaixotasun bat duzunean, pazienteak elkarrengandik zentratu eta urrunduagoak izan hobe, elkar kutsatzeko arriskua txikitzen duzu. Ospitalean bereizketak egin behar zirela esaten zuen agindua jaso genuenerako 15 egun baino gehiago generaman neurri hori hartuta.
Eta zuen pazienteak ez dira ohikoak.
Kognizio-narradura mailaren bat dute beti, demenzia izan edo ez,

eta jokabidearen-nahasmendua. Halako pertsonak ezin dituzu gela batean itxita utzi prebentzioagatik. Jokabidearen-desorekatzeagatik sartu badira eta gela batean ixten badituzu gehiago okertuko da haien egoera. Ospitaleratzeak ez luke zentzurik izan.

Horregatik, gure protokolo guztiak birdiseinatu behar izan genituen. Ospitaleaz aparte, lantaldeak ere berregituratu ditugu, langile gehiagorekin, pazienteak artatu eta egun osoa gela barruan egon ez daitezen, jarduerak egi-

ten segitu dezaten eta, horrela, alde-funtzionala ez galtzeko. Gainera, jokabidearen-nahasmenduari dagokionez, buru horiek egonkortzen joateko. Bestela ezinezkoa zen.

Ez dira beti gelan egon?

Gureak banakako gelak dira. Hala ere, egun osoan gelan itxita ez izateko antolatuta gara eta patiora paseatzera atera ditugu; guk Norberaren Babeserako Ekipoa jantzita genuela eta haiek ezer ez ukituz.

COVID-19 proben kudeaketa nola egin duzue?

Osasunbidearen protokolo guztietara lotuta gaude eta eman dizkiguten irizpideak bete ditugu. Eta susmo handia genuen kasuetan koronabirusa balute bezala tratatu ditugu. Susmoa txikiagoa zen pazienteen kasuan talde txikitik izan ditugu, distantziak gordez.

Eta terapiak?

Pazientea ez da soilik botikekin orekatzen, botikak doitzea funtsezkoa da, baina bestelako terapiak egiten direlako ere orekatzen da. Terapiak gehienak mantentzen ahalagindu gara. Beste modu batera.
Norberaren Babeserako Ekipoa jantzita gelan sartzen zaretenean esan dezakete: non arrai nago!
Oso deigarria egin zait pazienteak izutzen ez zirela ikustea! Horren zati bat lantaldearen arrakasta da, trebatua eta prestatua dago. Logikoki, azaltzen ahalagintzen gara. Euren gaitasunen arabera ulertuko dute haiek.

Guztiaren emaitza zein izan da?

Oso ona. Ospitalean pazienteen arteko kutsatzerik ez dugu izan. Jokabidearen-nahasmendua eta koronabirusa zuten pertsonak ospitaleratu dira. Baina gauza bat da koronabirusa duela dakizun bat etortzea eta, bestea, ospitale barruan kutsatzea. Hori ez da izan, eta garrantzitsua da.

Ohe guztiak beteta daude?

Bai, guztiak, 21ak. Sartu-irteerak egon dira. Batzuk adinduen egoitzetan sartzeko zain zeuden. Baina egoitzek egoera zaila bizi behar izan dutenez, ospitalean ohi baino denbora gehiago izan dugu jendea.

Osasunbideari egoeraren berri eman behar izan al diozue?

Jakina. Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuek krisiaren kudeaketa erraztasunak besterik ez dizkigute eman.

Langileez zer esan dezakezu?

Langile guztien jokabidea erdugarria izan da. Askotan aldatu dizkiegu protokoloak, egunero informazio berria ematen genien, egunero prestakuntza gehiago... Hori nekagarria da. Aparte, norberak bizi duen egoera pertsonala: tentsioa, zenbait arriskuren esposiziopean egoeta... Denek egin dute ekarpena, familiak faltan zituzten pazienteak, ahalik eta hobekien egon zitezten. Pazienteen arteko kutsatzerik ez bada izan, guztion inplikazio horren ondorioz izan da. Bestela ezinezkoa litzateke.

Langileak zein babes neurriekin irudikatu behar ditugu?

Erabiltzen duguna da: txanodun buzoa, maskara, aurpegi babesgarria edo betaurrekoak eta eskularruak. Txanoa erabiltzen ez dugun bakarrak medikuak gara, fonendoskopioa belarritan jartzeko modurik ez genuelako izanen bestela.

Materialarekin nola ibili zarete?

Lanik handiena FFP2 maskarak lortzea izan dugu. Gehien kostatu dena izan da. Horregatik, lehentasuna eman genion maskara, batzuetan bikoitza, eta aurpegi babesgarriarekin erabiltzeari. Horrela, babes handitzeko. Orain baditugu FFP2 maskarak. Haien bizitza luzatzeko gainetik kirurgia-maskara jartzen dugu eta zarpitan erabili. Bestetik, gure biltegiaren kudeaketa eraginkorrarekin lortu dugu beharrezko materiala izatea.

Hala ere, langileren bat gaixotu al da?

Hiru gaixotu dira. Dagokien isolamendu aldia pasa dute eta bi dagoeneko lanean daude. Etxean, supermerkatuan edo klinikarako bidean oso ongi eginda ere kutsadura baten ehuneko ehuneko prebentzioa ezinezkoa da.

Jendea kontratatatu da, ezta?

Bai. Nik bereizitako eremuak behar baditut klinikan, bakoitza-erendako langileak behar ditut.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Klinikak ekonomia-ahalegina egin du, beraz.

Lehenik lantaldearen ahalegina aitortuta, klinikak egin duen ekonomia-ahalegina oso handia izan da, bai pertsonal aldetik, bai materialaridagokionez, baita eremuak banatzeko egin beharreko obrei dagokienean ere. Norberaren Babeserako Ekipoak, ia erizain kopurua bikoiztu da... Izugarria izan da. Baina bestela, ezinen genuke egin. Argi genuen baliabide guztiak jarri behar genuela kutsatzeak saihesteko. Ezin dena da pertsona bat jokabide-nahasmenduagatik sartzea eta koronabirusarekin gaixotzea. Gerta daiteke. Koronabirusaren hau ez baita bukatu. Patronatuak, gerentziak eta mediku taldeak garbi genuen: gutxienekoak ezin baditugu bermatu, ospitale gunea itxi beharra dago. Zorionez, gutxieneko horiek eta askoz gehiago lortu ditugu.

Klinikako paziente guztiak ez dira ospitale gunekoak.

Paziente asko telefono bidez artatzen segitu dugu. Eguneko zentroaz aparte, ahalegindu gara behar zuten pazienteei babesa ematen. Hau da, kanpo kontsultetara etortzerik izan ez duten paziente asko telefono bidez artatu ditugu.

Senideekin, telefonoz, bideo-deien bidez jarraipena egin daiteke, ezta?

Ez. Lagundu edo babesa eman dezakegu. Baina errealitatea da paziente miatu egin behar dela; auskultazioa egin, han-hemen ikutu... Gauza batzuk telefonoz egin ditzakezu, baina besteak ez.

"PAZIENTEEN ARTEKO KUTSATZERIK EZ BADA IZAN, GUZION INPLIKAZIO HORREN ONDORIOZ IZAN DA"

Pazientea ezaguna denean, askotan ikusi dugunean, horiei dei edo bideo-dei baten bidez medikazioaren doikuntza txikiak egin diezaiekegu. Nahiago dena horrela konponduko balitz! Horrela jendeak ez luke ospitaleratu beharko! Teknologia aurreratzen eta laguntzen laguntzen du, baina ez du guztia ordezkatzeko. Aurtengo asmoa da laguntza hori handitzea eta gure kontsulten formatua pixka bat aldatzea, pazienteak ospitalera etorri behar duenean ahalik eta denbora gutxien egon dadin.

Zer ikasi duzue?

Protokoloak ezin dira desagertu. Neurri berriak izanen dira. Erreserba modura taldeak egonen dira halakoei aurre egiteko. Klinikari ez diogu erne egoteari utziko. Aukera handia dago bigarren olatu bat egoteko. Negua etorriko da eta gripeak koronabirusarekin elkartuko dira. Garrantzitsuena da jakitea hori gertatu daitekeela. Eta jakitea trebatuta egon behar dugula, protokoloak eginak izan behar ditugula eta lehenbailehen jarri behar ditugula indarrean. Niretako funtsezkoa da egiten ari garena egiten segitzea, koronabirusa ez baita pasa. Goia jo du. Kurba ospetsua apaltzea lortu dugu, baina, edozein unetan, atzera ere goraka egin dezake kurba horrek: txertorik ez dagoelako, populazioaren % 70 immunizatu gabe dagoelako... Koronabirusa bertan dago. Hau ez da bukatu. Hori da arriskua: bukatu dela pentsatzea eta higiene neurriak, gizarte-distantzia lasaitzea. Kurba berehala egin dezake goraka. Ez da bukatu. Ikasi dudana da, lehenik, halako gertaerei aurre egiteko prest egon behar dugula. Zentro guztiak aurreikusita izan behar dute.

"Arlo profesionalaren gaitasuna agerian dago"

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoa onik atera da oraingoz koronabirusaren pandemiak eragindako "ekaitzetik". Arrakastan lantaldearen profesionaltasunak jokatutako papera azpimarratu du klinikako gerente Angel Gardachal Ausejok

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Klinikari asteak ziren Txinako koronabirusaren berri entzuten hasiak zirela eta arriskatzea eta gertaerei aurre hartzea erabaki zuten: Norberaren Babeserako Ekipoak erostea. Ondorioz, Lan Osasunaren Institutuak edo Osasun Ministerioak halako pazienteak artatzeko emandako argibideak betetzeko klinikako langile batek berak ere ez du inoiz ekipamendu eskasiarik edo erabilera murrizketarik izan.

Eguneko zentroa ixtean ez zuten Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espedienterik egin (postu aterako eta adostuta) eta langile batzuk ospitalera pasa ziren eta besteak aktibo mantendu dira. "COVID-19aren Kontra Bat Eginda" ekintza planaren bidez senideei bideoak eta materialak bidali dizkiete. Sormen, aisialdi, ariketa fisiko edo eskulanean bidez erabiltzaileak beraien kognizio gaitasunak mantendu zituzten. Senideendako edukiak ere zabaldu dituzte Whatsapp taldeen bidez, www.josefinaarregui.com/covid web orriaren bidez eta sare sozialen bidez. Senideekin ere uneoro telefono bidezko harremana mantendu du klinikak.

Bestetik Ez Zaude Bakarrik telefono mugikorreko aplikazio-



Josefina Arregi Klinikari giroa musikaz goxatzen. UTZITAKOIA


ren garapenean sartuta zegoen klinika. Haren bidez senideei informazioa, akonpainamendua eta prestakuntza eskaini nahi diete. Egoerak haren ezarpena azkartu du.

Gardachal azaldu digunez, klinikako osasun eta asistentzia langileraren hazkundea % 50 ingurukoa da. "Garbiketa lantaldeko kideek ordu gehiago lan egin behar izan dute, okupazio-terapian... Gehitu behar zaio osasun material berri guztiaren erosketari". Espazioen banaketa. Ekonomia ahalegina egin dute.

Datarik ez du eman ohiko jarduerara bueltatzeaz galdetzean. Gardachal "arlo profesionalaren gaitasuna" nabarmendu du: "dugun talde profesionalaren maila ona zela uste genuen, baina hori baino askoz ere maila handiagoa du. Hau diodanean teknikaz, ezagutzaz, gauzak ongi egiten jakiteaz hitz egiten ari naiz". Azkenik, gaineratu du: "gaur egun klinika arlo soziosanitario publiko eta pribatua itzal txiki bat izaten ari da, egoera berrira egokitze moduagatik, arazorik ez sortzegatik".



Ondarria Poligonoa Pab.6 / 31800 ALTSASU / Nafarroa





Altsasuarrak Aita Barandiaran egoitza paretik pasatzen.

"Ezin gara lasaitu!"

Pandemia arrasto beltza uzten ari da. Heriotzaren sega-lanak bereziak izan dira adinekoen egoitzetan. Baina ez Altsasuko Aita Barandiaran egoitzan. Bertako gerente M^a Eugenia Martinez de Goñi Perezek orain arte bizitakoaren berri eman digu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU Gobernuaren babesa sentitu al duzue?

Bai. Baina honek guztiok uste-kabea harrapatu gaitu, oso; arazoaren oso ez-jakin ginen. Esaterako, Norbanakoendako Babes Ekipamenduei dagokienez, aurreneko hilabetea ia, gure baliabideekin funtzionatu dugu, biltegiak bata, maskarak, gelak eta beste genituelako. Merkatuan hornikuntzarik ez zegoela ikusita, arrazoizko erabilera eginez eutsi diogu. Ondoren Osasunbidearen bidez hornitzen hasi zitzaizkigun. Aurreneko etapa kasurik gabe pasa dugu. Orduan gainezka zeuden osasun zerbitzu guztiak. Orain infekzio kasuren bat izanez gero errazagoa litza-teke ospitalera bideratzea.

Noiz hasi zineten neurriak hartzen COVID-19a egoitzan ez sartzeko? Egoitzarako sartu-irtenak martxoaren 2an edo 3an, gehiago

kontrolatu ahal izateko. Bisitariak kontrolatzea oso zaila zenez, egoiliarrak oso zaurgarriak direnez eta hemen kutsatzea erreza denez, koronabirusari beldur handia genionez eta egoerak okerrera egiten zuela eta kasu ugari agertzen ari zirela ikusi genuenez, martxoaren 13an erabaki genuen bisitak eta egoiliarren kalerako irteerak debekatzeko. Pena handiz. Oso neurri gogorra da, bai egoiliarrendako bai familiendako. Gobernuak 16an debekatu zituen bisitak. Guk sartzean, maskara jartzen, eskuak garbitzen, tenperatura

"LEHEN HILABETEAN GURE BALIABIDEKIN FUNTZIONATU DUGU, BILTEGIAN MATERIALA GENUELAKO"

hartzen eta beste egiten segitzen dugu.

Egoitzan zein neurri hartu dituzue? Martxoaren 16an egoiliarrak nolabait isolatzen hasi ginen, haien artean segurtasun distantzia jartzen. Bost jangela jarri genituen. Martxoaren 26an pasilloa isolatu genituen. Sarre-rako solairuan mugikortasun handiagoa duten pertsonak jarri ditugu. Dependentsia (fisiko edo psikiko) handiagoa dutenak goikoan daude, bakoitza bere gelan. Han gosaria, bazkaria, merendua eta afaria ematen diegu. 42 plazak beteta daude. Eta bakarren bat kutsatuz gero, ezin genuen COVID eremu bat sortu. Horregatik, ezkaratza txiki bat duen eta erabiltzen ez dugun komuna geriatriko bat COVID eremu gisa egokitu dugu. Ezkaratzean Babes Ekipamenduak jarri eta kentze-ko aukera dago.

Gela horren premia izan al duzue?

Bitan. Susmagarria izan den kasuren bat izan delako, tenperatura pixka bat altuago zuelako. Arduragatik izan da. Proba egin eta negatiboa eman bezain laster, atzera ere, euren gelara eraman ditugu. Egoiliar guztiei tenperatura neurtzen diegu, goizero eta arratsaldero. Hamarreko bat gora egiteak alarmak pizten ditu, horri begira baikaude. Martxoaren erdialdean egoiliar eta langile guztioi testa egin ziguten (80 bat) eta denak negatibo eman genuen. Ondorioz, uneko tentsioaren baitan, nolabaiteko lasaitasuna dugu. Ezin gara lasaitu, edozein unetan gerta daiteke. Zortekoak gara. Ilbeltzetik ez da egoiliar bat bera hil.

Egoiliar askok dependentsia handia dute. Nola egokitu dira?

Tokiz kanpo gaudenak gu gara. Gelan egotearena, kalera atera ezina eta beste gaizki hartuko zutela pentsatzen genuen pertsonen onerako harritu gaituzte. Oso lasai eta entretenituta daude. Okupazio terapeutak lantxoak ematen dizkie, irakurtzea gustoko duena irakurtzen ari da. Nahikoa ongi daude. Hobe eramanen zutela uste eta pare bat gaizki egokitu dira.

Bestelako neurririk hartu al duzue?

Senideekin Whatsapp taldea sortu genuen. Uneoro informatzen saiatzen gara. Astegunetan, 10:00etatik 12:00etara, bideo-deiak egin ditzakete. Gainera, egunean zehar nahi dutenean telefonoz hots egin dezakete. Okupazio terapeutak, senideei bidali genien bideo bat egin zuen egoiliar guztiekin. Amaren eguna baliatuta, senidearen argazkia bidali diegu.

Arintze neurrien egutegirik ba al duzue?

Adinduen egoitzak azken-azkenak izanen gara. Jende zaurgarria dagoelako eta arrisku handia dutelako.

Osasun arreta handitu al da?

Osasun Etxean COVIDaz arduratzen den mediku bat eta erizain bat dute eta egunero hots egiten digute jakiteko zein den egoera. Materiala, haiek jaso ahala guri ematen digute. Gainera, egunero, 14:00ak baino lehen Nafarroako

"TOKIZ KANPO GAUDENAK GU GARA. GELAN EGOTEARENA? ENTRETENITUTA ETA LASAI DAUDE"

Gobernuari gure egoeraren berri eman behar diogu.

Eta langileak?

Martxoko bigarren astetik oso isolatuta egon gara. Beti langile berak egon gara. Jende berria ez sartzeko, bakarren batek huts egiten zuenean lantaldeko besteren batek ordezkatzeko saiatu gara. Beti arriskua murrizten saiatzeko. Momentuz lortu dugu, ez baita kutsaturik izan.

Honen aurretik lan taldea kezu zen langile premia zegoelako.

Arratsalderako erizain bat kontratatatu zen. Garbitzailea ere. Lan hitzarmenean urteko lanaldia murriztu denez, doitu beharra dago. Asteburuetan lan egiten duten langile batzuk aldi baterako kontratuak dituzte. Egutegi berria ezarri bezain laster lanaldi osora pasako dira. Honek egutegia onartu gabe harrapatu gaituenez, egoiliarrak pasilloa banatzean, errefortzu gisa zaindari baten laguntza jarri da asteke egun guztietan, goizez eta arratsalde. Bi horiek eta haien atsedaldia betetzen dituen langilearenak dira gehitu diren lanaldiak. Guztira 24 langile gaudu. Gainera, okupazio terapeuta, fisioterapeuta eta azpikontratutako garbiketa eta sukaldako langileak daude.

Pasilloen antolakuntza nolako da?

Behoko solairuan zaindari baten arreta dute goiz eta arratsalde. Goiko bi pasilloetan bakoitzeko bi zainzaile daude, goiz eta arratsalde. Eta gauaz bi zaindari daude, beti bezala.

Zer ikasi duzue?

Langileen portaera ikusgarria izan da eta eskertu egin nahi diet. Langile guztien konpromisoa egon da. Erizainak motor nagusia izan dira eta gorai patu beharra dago. Egoitzako osasun profesional bakarrak dira eta guztia antolatu dute, irizpideak eman dituzte. Haiek esandakoarekin, eta departamentuen gomendioekin, gainerako guztiak mugitu gara protokoloak egiterakoan eta antolakuntza horretan laguntzeko. Bestetik, jendeak babes handia eman digu. Esker oneko hitzak besterik ez ditut. Urtero gripea dugu, baina txertoa da. Gutxi gorabehera ezaguna da eta badakigu nola aurre egin. Lastailean goraldi bat bator, seinale txarra izanen da, baina, behintzat, prestatuago egonen gara. Material gehiago izango dugu behintzat.

Osorik: www.guaixe.eus

Hoteleko erreserbarekin, gimnasioko kuotarekin... zer egin? 10 gako

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak alarma-egoeran sortutako kezkak argitzeko dekalogoia edo gida kaleratu du. Alarma-egoeran Iratxe elkarteak kontsumitzaileen kontsultak jasotzen segitzen du, Sakanan

Maidar Betelu Ganboa eta lune Trecet Obeso SAKANA



1 Telefono eta internet konpainiek ezin dituzte prezioak garestitu.

Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean aipatutako zerbitzuak ematen dituzten enpresek lehengo prezioei eta baldintzei eutsi beharko diete. Komunikazio elektronikokoak ez dira eteten ahal sarearen segurtasun arrazoiengatik baizik. Telefono konpainiek eramangarritasunak soilik eskaintzen ahal dituzte baldin eta teknikoek kontsumitzaileen etxean ez badute lanik egin beharrik eta kontsumitzaileak operadorearen dendara ez badu jo beharrik.




2 Kontsumitzaileak erositakoa itzultzeko aukera izanen du gero ere.

Internetez naiz dendan erositako produktuak itzultzeko epe-mugak etenda daude alarma-egoerak dirauen bitartean baita bere luzapenetan ere. Alarma-egoerak ezarri zuen RD 463/2020 indargabetu eta gero hasiko da denbora kontatzen, hau da, bitartean ez dira epeak agortuko.



3 Egoera ekonomiko larrian dagoenak hipotekaren ordainketa etetea eskatzen ahal du.

Horrela da, ohiko etxebizitza erosteko hipoteka bada edo hipotekatutako etxea alokatuta egonda maizterrak ordaintzen ez badu, beti ere, legearen arabera eskatzen duenaren egoera larria bada. Hipotekaren kuoten ordainketa eten egiten da 3 hilabetez gehienez, alarma-egoera akitu eta gero bankuari edo kutzari eskatu behar zaio, 45 egun pasa baino lehen. Finantza erakundeak 15 egun izanen ditu neurri berezi hori aplikatzeko edota erantzuteko.



4 Akademia edo gimnasioaren kuotak itzuli behar dira.

Hileko kuotak ordaintzen badira eta egoerak eraginda zerbitzua eteten bada, eskatuz gero, eman ez diren zerbitzuen kostua itzuli beharko da. Enpresak bestelako proposamenak egiten ahal ditu dirua itzuli baino lehen baino hasierako kontratutik kanpo egiten diren proposamenen gainean akordiorik ez bada enpresak kuota zati bat itzuli beharko dio kontsumitzaileari. Akordioa onartzen duen kontsumitzaileak ez ditu kuota berriak ordaindu beharko zerbitzua martxan hasi arte, eta onartzen ez duenari berriz, ez zaio baja ematen ahal segitu nahi badu. Kirol Elkarteetako bazkideen kasua ezberdina da kontsumitzaileak ez direlako.



5 Argia, gasa eta ura ezin dituzte etxebizitzetan moztu.

Alarma-egoeran enpresek ez dute ohiko etxebizitzetan ura, gasa eta argia moztzen ahal, segurtasun arrazoiengatik izan ezik. Argiaren Gizarte Bonoak luzatu dira irailaren 15era arte eta autonomoei baldintzak malgutu zaizkie Gizarte Bonoa lor dezaten. Alarma-egoeran enpresek ez dituzte etxeetako kontagailuen irakurketak jasoko. Hori dela eta, norberak bere irakurketak jasotzea eta konpainiari ematea gomendatzen da.

Iratxek Sakanan eskaintzen duen zerbitzua

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak Sakanan ere ematen du zerbitzua, Arbizun, Irurtzun-Arakilen, Arbizun, Lakuntzan, Etxarri Aranatzen, Altsasun eta Olaztin hain zuzen ere, bertako udalekin duen hitzarmenei esker. Mikel Bezunarteak artatzen ditu kontsultak herri guztietako udal zerbitzuetan, Etxarri-Aranatzen izan ezik, bertan Maidar Lazkanok egiten baitu harrera. Altsasura astero joaten dira (astearteetan), Irurtzun-Arakilera hilean 3 aldiz (astelehenean), Lakuntzara eta Arbizura hilean behin, txandakaturik (asteazkena), Olaztira hilean bi aldiz (ostegunean). Eta Etxarri Aranatzera hilean bi aldiz.

Orduetegiari dagokionez, 10:00etatik 13:00etara izaten da, Arbizun eta Lakuntzan izan ezik, bertakoa 9:00etatik 13:00etara baita.

Mikel Bezunarteak adierazi digunez, alarma-egoeran ere zerbitzua ematen jarraitzen dute. "Jendeak hitzorduak hartu behar ditu 012ra deituz edo herrietako udal-txeetan bertan, herriaren arabera, eta guk hitzordua duen jendeari telefonoz deitzen diogu. Gero, agiriak beharrezkoak badira internetez bidaltzen dizkigute eta guk ere erreklamazioak posta elektronikoz egiten ditugu" azaldu du. Hortaz, kontsumitzaile garen aldetik edozein kezka edo zalantza badugu, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak atea zabal-zabalik daude.



6 Alarma-egoerak eraginda bete ezinda gelditu diren kontratuak baliogabetzeko aukera dago.

Hori bai, kontzertu bat ikusteko txartelak erosi zuenak edo hoteleko erreserba egin zuenak alarma-egoera bukatzen delarik 14 egun besterik ez ditu izango kontratua

baliogabetu eta dirua eskatzeko. Legeak 60 egun ematen ditu enpresariak eta kontsumitzaileak kontratua bertan behera utzi eta dirua itzultzea sahistuko duen bestelako akordio bat lotzeko. Bidai konbinatuak bada, hotela eta hegazkina batera kontratatu badira adibidez, diruaren orde, bidai-agentziak, hurrengo urtean erabiltzeko bono bat eta dago-kion berme ekonomikoa emateko aukera du. Bidaia ez bada gauzatzen kontsumitzaileak dirua eskatzeko aukera izanen du, urte bat pasa eta gero. Kontsumitzaileak dirua eskatzen ahal du hasieratik baino bidai-agentziak bertze enpresek (hegazkin konpainiek, hotelek etabarrek) bueltatu duten dirua baino ez dio eman behar. Bidai-agentziak itzultzen duen diru kopuruaren arabera murriztuko da gero bonoaren balioa.



7 Etxebizitzako maizterrak 6 hilabetez luzatzen ahal du kontratua.

Ohiko etxebizitza alokatzeko kontratua bada eta 2020ko apirilaren 2tik hasi eta alarma-egoera akitu eta gero hurrengo 2 hilabeteetan amaitzekoa bazen 6 hilabetez luzatzeko aukera izanen du maizterrak. Bestalde, egoera larriandakuden pertsonak ez dira alokatutako etxebizitzatik botatzen ahalko alarma-egoerak dirauen bitartean eta ezohiko egoera hasi zenetik hurrengo 6 hilabeteetan. Egoera larriandakuden pertsonendako laguntzak badaude. Hauek dirulaguntzak eskatzen ahal dituzte etxebizitzako jabea enpresa delarik eta ordainketaren etetea partikularra den kasuetan. Ohiko etxebizitzak ez diren pisuak alokatzeko egiten diren kontratuei, ez zaizkie neurri hauek aplikatzen.



8 Kasu eman ordutegi berriei.

Alarma-egoera dela eta denda askok ohiko ordutegiak aldatu dituzte. Dendetan denbora luze ez pasatzeko erosketa etxean antolatzea gomendatzen da. Hainbat dende argibide interesgarriak ematen dituzte, hala nola noiz dagoen jende gutxiago edo produktuen kokapena zein den.



9 Premiazko zerbitzu bat behar baduzu, aurrekontua eskatu.

Ur-isuri bat gertatzen bada edo sarraia irekiko duen profesional bat beharrezkoa bada aseguru kontratuan konpainiak ordaindu behar ote duen begiratu. Kontsumitzaileak ordaindu behar badu aurrekontu zehatza eskatu behar da. Kontratutako lana bukatu eta gero ordainagiria eskatu egindako lanak garrantzia du eta.



10 Argibidea hartu eta ematerakoan kontu eman.

Koronabirusak eta honen inguruan sortu den egoerak informazio ugari jasotzea ekarri du, batez ere, Interneten aurkitu daitekeena. Egoera honetan arduraz jokatzeko gomendatzen da eta informazioen egiazkotasuna ziurtatzea.



Galtzada berreskuratzeko lanetan Europako gazte boluntarioak aritu dira azken urtetan. ARTXIBOA

Mandazainen urratsak jarraituz

Bernoako galtzadan GR ibilbidea sortzeko proiektuak Europar Batasuneko diru laguntza lortu du. Ezohiko egoera bukatzean proiektua martxan jartzea espero dute. Etxarri Aranazko, Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo Udalak elkarlanean aritu dira

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Bernoako galtzada balorean jartzeko proiektuak Europako Nekazal Garapen Planeko dirulaguntza jaso du. Etxarri Aranazko, Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo Udalek bat egin dute proiektua martxan jartzeko. Sakana Garapen Agentzia lauren arteko koordinazio lana egiten ari da, Sakanako Cederna Garalurreko teknikariarekin batera.

Sakanako hainbat herritan urteak daramatzate Bernoako galtzada berreskuratze lanak egiten. "Aukera polita ikusi zen balorean jartzeko prozesu honetan, ibilbide sare bat eratzeko". Bernoako galtzada ardatz hartuta, beraz, GR bat sortzeko proiektua sortu zuten Etxarri Aranazko, Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo Udalek, Paqui Urbitarte Cabrera Sakana Garapen Agentziako teknikariak

azaldu duen bezala. Lau udalerriak elkarlanean aritu dira, "sinergian". Nekazal Garapen Planaren edo PDRaren barruan aurkeztu zuten proiektua, eta orain jakinarazi dute Europara Batasunaren dirulaguntza jaso duela.

Bernoako galtzada ardatz hartuta, lau herriak batzen dituen homologatutako GR ibilbide sare bat sortzean datza: lau udalerriek, Sakana Garapen Agentziaren koordinazio lanarekin, aurkeztu duten proiektua eta, orain, dirulaguntza jaso duena. "50 kilometrotatik

ETXARRI, BAKAIKU, ITURMENDI ETA URDIAINGO UDALAK ELKARLANEAN ARITU DIRA

gorako GR bat da, eta kasu honetan 65 kilometro inguruko ibilbidea izango litzateke". Hortaz, ibilbidea galtzada pasatzen den lau herrietatik pasako da. Galtzadaren egoera "desberdina" da udalerrri bakoitzean: "Urdiainen, Ataungo norabidean, galtzada guztia berreskuratuta dago. Iturmendin, Bakaikun eta Etxarri Aranatzen egoera desberdinean daude. Bakoitza bere zatia azaleratzen joan da". Aurreikusitako ibilbidea, galtzadaren "eremutik" pasako dela azaldu du Urbitartek: "Ez dira bide berriak egingo, egun existitzen diren bideetan seinaleak jarritz ezagutaraziko da galtzada".

Ibilbidearen helburua, galtzada balioan jartzea da. Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain batuko ditu, eta zirkularra izango da; beraz, norbera-

ren erabakia izango da 65 kilometroak osorik egin edo tarteka egitea.

Balorean jarritz

Azken bost urteetan Bernoako galtzada berreskuratzeko lanak egiteko De Amicia GKEaren Europako boluntarioak etorri izan dira. Gainera, herri bakoitzak ere auzolan taldeak ditu eta pixkanaka garai batean mandazainek erabilitako bidea azaleratzen joan dira. "Hori osatu nahian" eta galtzadari balore "erantsia" emateko ibilbide sare bat egiteko proiektua aurkeztu zuten. Hortaz, proiektuaren helburua galtzada balorean jartzea da. "Ez bakarrik galtzada azaleratzea, baizik eta horren atzean dagoen guztia jakinaraztea ere. Zertarako erabiltzen zen, mandazainen figura balioan jartzea ere...". Beraz, galtzadaren eta mandazainen historia kontatzeko helburua ere badago proiektuan aurreikusita. "Norabide-seinaleztapenez gain informazio panelak ere egongo dira".

"Oso proiektu polita da lau udalerrien artean egin delako". Bernoako galtzadarekin "zerbait egitea" aspalditik zegoen aurreikusia, baina orain lau udalerriek "positibotzat jo dute" helburu amankomun bat izatea: "Galtzadaren eta mandazainen historia balorean jartzea". Europar Batasunetik jasotako dirulaguntzaz "aukera polita zen horrelako proiektu bat gauzatzea". Proiektu honekin, Sakana, natur-turismoan eta kirol-turismoan ere koka daitekeela uste du Urbitartek. "Gure ondare hori guztia uztartuz proiektu oso polita sortu dugu".

Orain proiektua gauzatu behar dute. Udalerriei jakinarazi zaie dirulaguntza onartu dela. Baina alarma-egoera dela eta, ez daki-te noiz eman ahal izango duten hurrengo urratsa. "Normaltasun berri hori iristen denean edo hasiko gara lanean. Proiektua idatzita dago, baina martxan jarri beharko dugu". Oraintxe bertan administrazioan dagoen blokeoaren ondorioz epeak zintzuk diren ez dakitela azaldu du

PROIEKTUA GALTZADAN HOMOLOGATUTAKO GR IBILBIDE SARE BAT SORTZEAN DATZA

Urbitartek. "Ahal bezain laster hasiko gara".

Auzolanik ez

Azken bost urteetako udetan Europatik etorritako gazteak Bernoako galtzadaren berreskuratze lanetan aritu dira, herrietan sortutako auzolan taldeekin batera. Europa osotik etorritako De Amicia GKEren 16 eta 30 urte bitarteko boluntarioak ziren. Aurten, aldiz, "ez dela posible izango" uste du Urbitartek. "Deskalatze prozesuaren aurreikuspenen arabera ekaina amaieratik aurrera ahalbidetuko da estatu mailan mugitu ahal izatea, fase batetik besterako trantsizioa aurreikusitako bezala badoa. Orduan, aurtengo udan beste herrialdeetatik boluntarioak etortzea, oso zaila ikusten dut". Beraz, aurten lanketa hori ez dela egingo aurreikusten du Urbitartek. "Azken urtean Iturmendin egon ziren lanean". Hala ere, egoera "astetik astera" aldatzen dela esan du, beraz, "momentuz ezin dugu ezer aurreratu".

Galtzadaren ibilbidearen proiektua Sakanako lau udalerririk aurkeztu dute, baina galtzadak barnealdea kostaldearekin elkartzeko zuten. Mandazainek egiten zuten bidea, beraz, Lizarraldetik Pasaiara joaten zen. Momentuz Sakanako GR hori egingo da, baina Sakana Garapen Agentzia. Lizarraldeko eta galtzadak zeharkatzen duen beste eskualdeetako eragileekin harremanetan dago eta mandazainen figura balorean jartzeko zenbait ekimen dituzte buruan: "Gure proiektuen artea bazegoen buruan mandazainaren egun bat edo zerbait sinbolikoa egin. Senidetze egun bat sortzea beste zonaldeetako eragile horiek elkartzuz".

Mandazainek, mando bat hartuta, barnealdetik kostaldera produktuak garraiatzen zituzten, eta kontrako norabidea ere egiten zuten, barnealdera kostaldetik iristen ziren produktuak ekarriz. Proiektu honekin "presentzia eman" nahi diote mandazainek egiten zuten lanari ere. "Gaur egungo garraiolariek izango ziren. Egoera hobetzen denean martxan jarriko duten ibilbidearekin ezingo da "zuzenean" mandazainek zapalduko bide bera zapaldu, baina haiek egindako bidea jarraitu ahalko da.



Gobernuak errentako itzulketak hilaren 11tik aurrera eginen ditu.

Errenta-aitorpena euskaraz egiteko gonbidapena

UEMAK eta hainbat erakunde publikok elkarlanean sustatu dute kanpaina, administrazioa euskalduntzeko

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

COVID-19k eragindako pandemiak markatuta heldu da aurtengo kanpaina. Nafarroan errenta-aitorpena egiteko epea here-negun hasi eta garilaren 20ra arte luzatuko da. "Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezten bultzatu nahian" Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, udalek eta hainbat erakunde publikok errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina martxan jarri dute. "Batetik, datuetan islatu dadin udalerri euskaldunetan herritarrek euskaraz bizi garela. Eta, bestetik, administrazioa euskalduntzeko bidean eragiten jarraitzeko".

Sakanan UEMAKo kide Arbizu eta Etxarri Aranatz dira. 2018ko errenta aitortpena euskaraz egin zuten arbizuarren % 3,27k eta etxarriarren % 9,38k. Datu horiek hobetzeko gonbidapena eginez kartelak jarri dituzte bi herrietan. UEMATik aitortu dutenez, "errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua gorantz ari den arren, soziolinguistika errealitateak erakusten dituen datuetatik urruti dago oraindik". Gaineratu dutenez, "administrazioa euskalduntzeko duen eraginagatik, euskararen normalizaziorako bidean udalerri euskaldunak ematen ari diren beste pauso bat da errenta-aitortpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea".

COVID-19 pandemiak baldintzatuko du aurtengo errenta aitortpena ere. Horregatik, foru

administrazioak bide telematikoa eta telefono bidezko arreta pertsonalizatuaren alde egin du, aurrez aurreko hitzorduen orde. Bestela, aurreko urteetan bezala, errenta aitortpena egiteko hainbat modu daude. Nafarroako Gobernuak 2000.561 proposamen egin ditu. Baina urte batetik bestera ondasunetan aldaketak badira, banketxeetara edo aholkularitzetara bideratzen dituzte. Horregatik, halako tokietan "Hemen errenta aitortpena euskaraz egin dezakezu" mezua duten kartelak jarri dituzte.

Bide telematikoak eta telefonoa

Horien alde egin du aurten Nafarroako Gobernuak. Zergadunak bere aitortpena Internet bidez egin dezakete www.errenta.nafarroa.eus web orrialdean, eta behar izanez gero, telefono bidezko aholkularitza jasotzeko aukera dute 948 106 106 zenbakira hots eginda. Bestetik, Errenta Gidatuaren sistemarekin, zergadunak bere aitortpena egiteko baimena emanen dio Foru Ogasunari, aurretik hitzordua eskatuaz 948 505 505 edo 948 505 506 telefonoetara deituta.

Errenta Aitortpenarekin loturiko izapideak egiteko, beharrezkoa izan da ziurtagiri digitalaren edo Nortasun Agiriaren eta PINaren bidez baimentzea. Aurten NAN+PINa eskuratu daiteke Ogasunaren web orrialdean (www.hacienda.navarra.es), jaioteguna eta Nafarroako Identifikazio Pertsonaleko Kodea jarrita.

Nola egin euskaraz?

Autolikidazio proposamena

Jasotako proposamena onartzerakoan, telefonoz edo Internet bidez euskaraz egin nahi duzula esan, eta ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

Mekanizatua

• Hitzordua hartzerakoan, ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula esan.

• Hala eskatuta, ogasunarekin harremanak euskaraz izan dezakezu aurrez aurre, telefonoz edo Internet bidez.

• Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

Internet bidezkoa

• Errenta Aitortpena www.errenta.nafarroa.eus-en egin

dezakezu. Telefono bidezko aholkularitza: 948 106 106.

Euskaraz nahi duzula adierazi.

- Aholkularitzaren bat aukeratu gero, berariaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
- Beste modu batean egiten baduzu, esaterako, finantza erakunde batean, euskaraz egiteko eska dezakezu.



Gure ikasleen ahotan



Ariane Atxa Gamboa
(Etxarri Aranatz, 21 urte)

Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza graduako 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

tago. Ate irekietara hurbildu nintzen eta bertan aurreko ikasleek egindako proiektuak ikustean ez nuen zalantzarik egin, metodologiaren praktikotasunak argitu zidan bidea.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Ez naiz behin ere damutu hona etorri izanaz. Proiektu pila bat

egin ditut, eta horietako batzuk sarrituak izan dira. Era berean, beste ikaskide batekin bi hilabetez Frantzia lan egiteko aukera ere suertatu zitzaidan pasaden udan. Orain nire gaitasunetan gehiago sinesten dut.

Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia? Unibertsitatefik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Metodologiaren praktikotasuna da giltza. Proiektu asko egiten dituzu, eta horietako gehienak hainbat hilabetetan landutakoak dira. Era berean, lehiketa ezberdinetan parte har-

tzeko aukera ere ematen dizute, zure gaitasunak unibertsitate ezberdinetako ikasleekin alderatzeko aukera, eta ez gara atzean gelditzen!

Dual ereduari zara, hau da, lanean ikasten duzun bitartean?

Aurten Erasmus+ programarekin Italian izan naiz, Torinon. Baina iaz Mondragon Unibertsitateko Etengabeko Prestakuntza sailean egin nuen lan.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Lan munduaren errealitateaz jabetzen laguntzen du, enpresek nola funtzionatzen duten ikusten. Bestalde, irabazitako diruarekin etxeko gastuetan laguntzeko aukera ematen dizu.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Diseinu estrategikoaren masterra egitea dut buruan, baina ez urte honetan. Pasaden urtean sortu eta landutako proiektu bat (KIXMI) aurrera eramateko eta errealitate bihurtzeko aukera suertatu zaigu, eta horretan saiatuko gara datorren ikasturtean.

"Metodologiaren praktikotasuna da giltza"

Zergatik aukeratu zenuen Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Arkitektura ikastea zen lehen asmoa baina, nire etorkizunean pentsatzen jarrita, beste hainbat aukera ere planteatu behar izan nituen. Horietako bat zen orain ikasten ari naizen gradua, diseinuarekin erlazionaturik bai-

"Kalifornian hasieratik dena itxi zuten"

LORENTXO IRIARTE MARZIAL KALIFORNIAN BIZI DEN SAKANDARRA

1982an joan zen Kaliforniara, eta San Franciscon bizi da. Kalifornia paradoxa bat bihurtu da koronabirusaren krisialdian; kasu gehienak "beste" kostaldean ematen ari dira

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Herrialde bakoitzak koronabirusari aurre egiteko antzeko neurriak hartu ditu. Konfinamendua izan da gehienetan hartutako erabakirik nagusienetakoa, herrialde bakoitzak itxialdia bere moduan kudeatu duen arren. Amerikako Estatu Batuetan #stayhome deitu diote konfinamenduari. Hala ere, haren kontrako taldeak agertu dira, eta elkarretaratzeak egin dituzte hainbat hiritan. AEBk Covid-19 gaitzak eragindako gaixoen eta hildakoen tasarik altuena ditu: maiatzaren lehenengo egunetan 1,2 milioi gaixo baino gehiago eta 70.000 inguru hildako. Hala ere, Donald Trump, AEB-tako presidentea, itxialdiaren aurkako taldeen alde agertu da eta neurriak pixkanaka altxatzeko agindua eman du. Hortaz, maiatzaren hasieran eta gobernu federalak konfinamendua ezarri zuenetik 45 egun pasa zirenean, estatu bakoitzak nahi zituen neurriak hartzeko baimena eman zien Trumpek.

1980ko hamarkadan Lorentxo Iriarte Marzial etxarriarrak maletak hartu zituen eta Kaliforniara joan zen. Lanik gabe zegoen, eta zori on bila joan zen aukeren herrialdera. Artzain izan zen Kaliforniako larreetan. Aitortu duenez, hasiera zaila izan zen; 2000 ardi inguru zaindu behar zituen, bi txakurren laguntzarekin, eta kanpin-denda batean lo egiten zuen. Baina bizimodu horretara ohitu zen. Ingelesa ere ez zekien, eta New Yorkera iritsi zenean mexikar batek lagundu zion San Franciscora joateko hegaldia hartzen. "Jendea ona



Zoily Iriarte Zaldibar eta Lorentxo Iriarte Marzial, ikurrinaren egunean. UTZITAKOIA

da. Toki guztietan ikusten duzu jende ona". San Francisco inguruan bizi da, hiritik 40 minututara. 125.000 biztanle dituen Antioch "herrian" bizi da bere familiarekin, Contra Costa eskualdean. Berriain mendia presente du, bere egongelan bi argazki dituelako. Amerikako Estatu Batuetan koronabirusaren egoera New Yorken bezain larria dela esan du, baina Kalifornian "lasai" bizi direla. Kalifornia AEBtako paradoxa bihurtu da koronabirusaren krisialdian.

Zein egoeratan zaudete?

Etxean egoteko esan digute. Kanpora ez ateratzeko. Txakurrarekin, bizikletarekin buelta bat ematera edo hurrekin bakarrik atera gaitezke. Baina kontuz ibiltzeko esan digute. Distantzia soziala delakoa mantendu behar dugu. Bi metro. Dendetan ilara handiak egiten dira. Hasieran gogorra izan zen, dendetan sartzeko ilara horiek. Orain lasaitu da. Ohitu gara. Beharko.

Trump presidentea konfinamenduaren aurka agertu da.

Zozo hau badakizu nolakoa den... Baina Gavin Newsom, Kaliforniako Gobernadorea, demokrata da. San Franciscoko alkatea izan zen ere. Eta horrek hasieratik dena moztu zuen. Hondartzak eta guztia itxi zituen eta etxean gelditzeko eskatu zuen. Martxoaren 13an ikastetxeak itxi zituen. Hasieratik. Ondoren, dendak itxi zituen. Konfinamendua jartzen lehenengo estatua izan zen. Orain hasi dira pixkanaka zabaltzen. Baina jende asko joan zen, hondartzak bete ziren, eta ondorioz, gobernadoreak esan zuen ezetz. ezetz, ezin zela horrela izan, eta berriz itxi zituen.

Egoera hobetu delako ireki zituzten?

Hemen Kalifornian ez da New Yorken bezala, beste kostaldean bezala. Bertan jende asko hiltzen

"HANGO EGOERA GEHIEGIZKOA DA; ISUNAK JARTZEA KALETIK IBILTZEAGATIK GEHIEGIZKOA DA"

"HEMEN, KALIFORNIAN, EZ DA NEW YORKEN BEZALA, BESTE KOSTALDEAN BEZALA"

ari da. Hemen dena hasieratik itxi zutenez, hobe gaude.

Beraz, neurriak gogorragoak izan ziren eta eragina izan du?

San Franciscoko konderrian 29 lagun hil dira eta 1600 positibo daude. Eta San Francisco handia da. Milioi bat pertsona biziko gara bertan. Neurriak eraginkorrak izan dira. Kalifornia osoan 2.100 hildako inguru izan dira eta gutxi gorabehera 50.000 positibo izan daude. Eta Kalifornia handia da, Espainiako Estatu bezalakoa da, gutxi gora behera. 40 milioi biztanle baino gehiago ditu Kaliforniak. Beste kostaldean, New York eta New Jersey inguruan izugarria izan da. AEB osoan uste dut 68.000 hildako baino gehiago izan dira, eta erdia baino gehiago kostalde horretan izan dira.

Eta nola daramazue etxealdia?

Etxean egotea niretako ongi. Emazteari belauna operatu zioten, protesi berria jarri zioten, eta etxean gelditu beharra geneukan. Goizero etxetik pixka bat mugitzen naiz, kafe bat hartu eta segidan Guaixe eta Noticias de Navarra irakurtzen ditut Internet bidez. Telebista ikusi... Seme zaharrena lanean ari zen, baina azken lan eguna igandean izan zuen. Gobernuak etxean egoteko bi aste eman dizkie. Ordaindurik. Oporrak bezala baina gobernuak ordainduta. Laurok etxean gaude, hemen geldi-geldi. Ni oso etxezalea naiz, beraz, ongi. **Jendeak konfinamendua bete al du?** Jendeak errespetu handia du; asko errespetatzen du. Dendetan nahi eta nahiezkoa da maskarekin sartzea, eta jende guztiak eramaten du. Bestela ez zara dendan sartzen. Kalera ateratzeko ez da maskara behar. Auzokoekin hitz egiteko distantzian egiten dugu.

Eta nola ikusi dituzte neurriak?

Jendeak beldur handia du. Egunero entzuten dugu New Yorken 800 eta 900 daudela. Beti daude burugogor batzuk, igandean bezala, San Franciscoko kapitolioan ehun bat pertsona protestatzen egon ziren.

Konfinamenduaren aurkako taldeak dira, ezta?

Talde oso txikia da. Lau zozo. Betiko zozoak. Telebistako inkesta batean esan dute, kaliforniarren %82ak horrela egon nahi duela. Latinoen artean % 84a konfinamenduan jarraitzearen alde daude, eta afroamerikarren artean % 85a. Telebista pitzen



Lorentxo eta Zoily bizi diren auzoa. UTZITAKOIA



duzu eta dena da koronabirusaren inguruan eta jendea hiltzen ari dela. Denak beldurtu egiten gara. Denoi. Orain ongi gaude, baina bihar dendara joan eta harrapa dezakezu.

Orain Estatu bakoitzeko gobernadoreek nahi dituzten neurriak jartzeko aukera dute. Zer gertatuko da Kalifornian?

Edozein gauza egin dezakete. Hemen momentuz hilabete osoa etxean egoteko esan digute. Kalera atera gaitezke, baina ez honen aurretik bezala. Orain arte dendak itxita egon dira. Supermerkatuak bakarrik egon dira zabalik. Eta pixkanaka dendak zabalduko dituztela esan dute. Datorren astean hasiko dira. Arropa-dendak eta halakoak. Jatetxeak ari dira telefonoz eskatzen duzuna ekartzen. Baina ezin zara jatetxera joan. Tabernak ere itxita daude. Irekitzen hasiko direla diote, baina jende erdia baino ezingo da sartu. Eskolak hemendik bi hilabetetara ireki nahi dituzte.

Ikasturte honetan, beraz, ez dira eskolara itzuliko, ezta?

Oraindik ez dakite zer egin behar duten. Kurtsoa bukatzeko... ez dut uste. Nire semea, bigarrena, etxetik ari da ikasten, unibertsitatean, bideo-deien bidez. Ez dut uste haurrak itzuliko direnik. 30 haur gela batean... ez dut uste. Gogorra izan behar da haurrendako. Unibertsitateena beste kontu bat da. Gobernadoreak esan du bi hilabete barru ikas-

turtea hasi eta datorren ikasturtearekin elkartzea. Baina ez dakit zer egingo duten.

Hemengo albisteak irakurtzea gusatzaten zaizu. Zer pentsatzen zenuen hemengo berriak ikustean?

Nik uste nuen gehiegizkoa zela. Isunak jartzea kalean ibiltzeagatik... Hemen poliziak ez ditu isunak jartzen. Hango egoera eta hemengo ikusita gu zeruan gaude. Anai-arrebekin eta ilobekin hitz egin dudanean hori kontatzen zidaten, jendea kalek oinez ibiltzeagatik eta partzelarietan ibiltzeagatik isuna jartzen zutela. Gehiegizkoa da. Hala ere, Etxarrin maiatza jarri zutela ikusi nuen ere. Ene!

Albistegiek zer diote hemengo egoerari buruz?

Jende asko hiltzen ari zela esaten zuten. Hasieran ere ez zeudela ez maskarak ez ezer, erizainen arazoak kontatzen zituzten... Kaosa zela esaten zuten. Baita Italian ere.

Kaliforniako konfinamendua hemengoarekin konparatu izan dute. Zein desberdintasun ikusten dituzu?

Han gehiegizkoa izan dela uste dut. Jendea karrikan gelditzeagatik isunak jartzea gehiegizkoa da. Hemen ez duzu polizia ikus-

"KALIFORNIAKO ZATI HANDI BATEK HORRELA JARRAITZEA NAHIAGO DU"

ten. Hasieran jendea hondartzetan ibiltzen zen baina esan zuten ezetz, dena itxi zuten eta etxean gelditzeko esan zuten.

AEBtan osasun sistema desberdina da. Nola kudeatu dute krisialdia?

Hemengo sistema batzuetan ho-beagoa eta bestetan makurragoa da. Lan egiten baduzu seguru bat ordaintzen duzu. Hemen Kalifornian lau edo bost aseguru etxe daude eta nahiago duzuna aukeratzeko duzu. Baina lana ez baduzu galdu baduzu ospitalera orddaindu gabe joan zaitezke. Badaude pobreenako ospitaleak ere.

Ospitaleetan lekua egon da?

New Yorken bai, baina Kalifornian ez. 1.200 ohe gelditzen omen ziren. Ebakuntzak eta beste bertan behera gelditu ziren eta koronabirusa duten gaixoendako gorde zituzten.

Ekonomia aldetik, koronabirusaren egoera nabaritu da?

Hemen dendak eta arrantxoak ditugu: olibak, marrubiak, artoa... eta jendea lanean ari da. Baina krisi ekonomikoa nabaritu da. Ikaragarriko krisia heldu da. Asko jaitsi da eta esaten dute gehiago jaitziko dela. Ez dakit zenbat milioiko galerak izango diren. Lanpostuak galdu dira ere. Hemengo biztanleriaren erdia baino gehiagok San Francisco lan egiten du. Nire emazteak eta biok San Francisco lan egiten genuen. Orain erretiratuta gaude. Egunero joaten ginen San Franciscora, eta jendea egunero joaten da lanera. Eta dena itxita badago... Esaten

dute gutxienez urte bat pasa beharko dela ekonomia berreskuratzeko.

Egunero San Franciscora joaten baziren, konfinamenduak trafikoa-ren beherakada ekarriko zuen, ezta?

Bai. Orain zeharkatzeko hutsik dago. Astelehenetik aurrera nabaritzen hasi zen, hainbat jarduera martxan jarri direlako. Eraikuntza eta abar.

Hemen 20:00etan jendea balkoi-tara ateratzen da osasun arloan eta krisialdian lanean ari direnak omentzeko txalotzera. Han halakorik egiten da?

Duela gutxi aireko flotak erakustaldia egin zuen New Yorken gainean. Behin egin zuten. Mendi-kuendako eskerrak emateko zela esan zuten. Baina jendea ez da ateratzen kalera txaloak jotzera.

Etortzea pentsatuta zenezuekan?

Joan den urtean Etxarrin egon nintzen. Baina aurten ez dut uste

joango naizenik. Bidaiak egiteko egoera ez da oso ona. Hegazkintan 300 bat pertsona sartzen dira eta ez dute utziko oiloak kamioian bezala joaten. Ez dut uste. Beraz, goraintziak Sakana osoari eta nire lagunei, Martini, Zaitegiri, Tuerkasi eta besteei. Denondako.

Bidaia luzeak egiteko ez, baina estatuen artean bidaiatzeko aukera ba al duzue?

Ez. Gure Estatuan gelditu behar gara.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Denda txikiak pixkanaka irekitzen hasi dira. Ez dakit, txertoarekin dena konponduko dela espero dut. Edo ea inmundizaten garen. Itxaropen hori izan beharko dugu. Denok. Txertoaren esperoan. Ba omen dago botika bat jendeari koronabirusa pasatzen laguntzeko. Jendea 14 edo 15 egunetan sendatzen dela diote. Denbora erdian.



Zuk jorri mahaira eta guk jana!

Gure menuak eta kartak etxera
Asteburuetan gauetarako bokatak,
hanburgesak eta razioak

Gure eskaintza guztia:
www.janatxo.com

· Fernando Urkia kalea, 29 · Arbizu ·
· 686 654 382 · 666 616 303 · 687 371 939 ·

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Koronabirusagatik sortutako krisia dela eta, 2019/2020 denboraldiari uste baino lehenago agur esan behar izan dio Naiara Diez kapitain altsasuarraren Gernika Lointek taldeak. Espainiako Saskibaloiko Federazioak liga bertan behera uzteko erabakia hartu du, eta aurrerago erabakiko du zein taldek lortuko duten hurrengo denboraldian EuroCup-ean jokatzeko txartela.

Saskibaloiko Liga bertan behera uzteko erabakia hartu du federazioak. Badakigu koronabirusarengatik munduan zer nolako egoera dagoen, eta aurreko astean federazioak ligari bukaera emateko hartutako erabakiaren berri eman zigun. Nik uste hobereena dela; etxean gaude, eta jokatu ahal izateko aurretik entrenatzeko hilabete bat izan beharko genuke, lesioak ez izateko. Horrela erabaki dute eta horrela da.

Futbola bueltatzeko xehetasunak adosten ari dira. Erabaki horren atzean diruak pisua duela uste al duzu?

Beno, hori dirudi... Gure saskibaloiko liga, beharbada, ez da jendearendako hain garrantzitsua. Futbolak, guztiok dakigun moduan, diru asko mugitzen du, interes asko daude atzetik, telebista eskubideak daude, zale asko daude eta ekonomikoki diru asko galtzen ari direla badakigu. Ez dakit ondo edo gaizki aterako den, baina badirudi martxan jarriko direla, ez bakarrik Espainiako Futbol Liga baizik eta Europako Champions Txapelketa ere; beraiek jakingo dute, ziur neurriak jarriko dituztela pandemia hau geratzeko eta dena ziurtasunez egingo dutela. Erabaki horiek ez dakit ongi edo txarto aterako diren, baina beharbada ekonomia hobestu dutela ikusten da.

Liga bertan behera gelditu dela jakitea nola hartu zenuen?

Espero nuen, baina tristeziak hartu nuen. Azkenean denboraldi ikaragarria egin dugu Lointek Gernikan; Emakumezkoen Ohorezko Mailako Ligan 3. postuan geunden, Europan oso ongi ibili gara, eta denboraldi bikaina izan da guretako. Bagenekien liga horrela bukatzeko aukera baze-goela, baina gatz da, inori ez zaio horrela bukatzea gustatzen. Espero genuen, baina halako zapo gazi bat uzten dizu. Batez ere taldekideak lagunak garelako, ia familia izango bagina bezala. Denbora asko pasatzen dugu

"Liga horrela despeditzeak zapo gazi uzten dizu"

NAIARA DIEZ LOINTEK GERNIKAKO KAPITAINA

SASKIBALOIA Espainiako Saskibaloiko Federazioak denboraldia bertan behera uztea erabaki du; Naiara Diezen Lointek Gernikak 3. postuan bukatu du, EuroCup postuetan



Naiara Diez Lointek Gernikako kapitaina Altsasuko etxean entrenatzen. UTZITAKOIA

batera, asko bidaiatzen dugu, gauza onak eta txarrak batera pasatzen ditugu, eta guretako gatzena egun batetik bestera agur esatea izan zen. Dena oso azkar iritsi zen; hasierako erabakia hurrengo partida publikorik gabe jokatzeko izan zen, hurrengo egunean jada esan ziguten hurrengo bi jardunaldiak bertan behera utziko zituztela eta egun batetik bestera bakoitza bere etxean geunden, Gernikan genituen gauzak ia ia batu gabe, ez jakintasun hori atzean genuela. Bideo-deiak egiten ditugu eta asko hitz egiten dugu, baina ez da berdina.

EuroCup-ean, ligan... beste taldeekin koronabirusaren gaia aipatzen al zenuen?

Bai, noski, hitz egiten zen. Taldean hitz egiten zen eta Ligan ere. Ligako talde guztietako kapitainek Whatsapp talde bat dugu eta koronabirusa zela eta, zer nolako egoerak gertatu ahal ziren hitz egiten genuen gure artean. Ez genuen espero birusa hain azkar hedatuko zenik. EuroCup-eko partida baterako Frankfurt-eko aireportuan geundela, jendea maskarillarekin ikusi genuen

"FEDERAZIOAK ERABAKI HOBERENA HARTU DU; GURE 3. POSTUA MANTEN DEZAN ESPERO DUGU"

lehenengoz, eta 10-15 egun pasata etxean geunden, konfinamenduan. Oso azkarra izan da.

Sekulako denboraldia egin duzue. Lointek Gernika Bizkaia taldekoek. EuroCup-ean historia egin eta final zortzirenetara iritsi zineten; Valenciaren kontra erori zineten baina burua tente, sekulako kanpaina egin eta gero. Emakumezkoen Endesa Ligan, 22 jardunaldi jokatu, Perfumerias Avenida liderrak 41 puntu zituen, Girona bigarrenak 40 eta zuek, hirugarrenak, 39 puntu. Beraz, asko zegoen jokoan oraindik. Orain, liga bertan behera geratuta, txapelkun egongo al da? Azken orduko berriren bat ba al duzue?

Espainiako Saskibaloiko Federazioak eta klubek liga nola gertatu den erabaki beharko dute. Momentuz ligako 3. postua gurea da eta postu horrek hurrengo denboraldian EuroCup-ean parte hartzeko aukera ematen du. Guk uste dugu postuak mantenduko direla. Ez dakigu aurreko txapelkun egongo ote den; dakigun bakarra da talde guztiek 1. mailan jarraituko dutela, ez dela jaitsierarik egongo, eta 2. mailatik bi talde igoko direla. Hortaz, hurrengo denboraldian 16 talde egongo gara 1. mailan. Oraindik hitz egiten daude, baina hori da intentzioa. Liga bukatu baino lehen esfortzu asko egin genuen 3. postuan egoteko eta espero dugu postu hori mantenduko digutela. Baina federazioak esan arte ezin dugu ezer ziurtatu.

Kirolari profesionalak entrenatzen hasiak dira. Nahiz eta liga bukatu, Gernikako Maloste pabilioira entrenatzera hurbilduko al zarete?

Liga bukatu da, eta jokalaria bakoitza bere etxean dago. Ameriketara daude batzuk, beste lurraldeetan beste batzuk... ezin dira bueltatu. Kirola egiteko egoera hobetu da, baina lurralde batetik bestera bidaiatzen egoteko egoera ez da hobetu. Gure liga bukatu da, eta ez gara Malostera bueltatuko hurrengo aurre-denboraldia hasten dena arte. Etxean egiten dugu kirola, eta gutxika hasi gara kalera ateratzen kirola egiteko, gainontzeko jende guztia bezala. Kirolari profesionalak gara, baina gainontzeko herritarrak bezala aterako gara kalera, eta zehaztutako neurriak jarraituko ditugu.

Altsasun zein aukera duzu entrenatzeko?

Altsasun egonda aukera bakarra kalera ateratzea da, eta etxean egin ahal diren ariketa fisikoak

egitea. Esaten dudanean kirolari profesionalak entrenatzera bueltatu ahal direla... bai, hala da, baina instalazioak pribatuak izan beharko lirarteke horretarako. Altsasuko kirol instalazioak publikoak dira eta itxita daude. Horregatik esan dizut gure aukerak gainontzeko herritarrek dituztenak direla. Kiroldegia irekitzen ez duten bitartean guztiok egoera berean egongo gara. **Hurrengo denboraldiari begira zein asmo dituzu? Loitek Gernikan jarraituko al duzu? Klubarekin hizketatu al zara?**

Oraindik oso goiz da horretaz hitz egiteko. Nik uste hurrengo asteetan hasiko garela taldearekin hitz egiten, hurrengo denboraldiari begira ea zer gertatuko den zehazten. Klubeko zuzendaritzak dagoen egoera zein den aztertu beharko du, hurrengo denboraldiari begira. Nik uste dut ekonomikoki gauzak aldatuko direla; ez dakit babesleek jarraituko duten ala ez, jokalaria oraindik ez dakigu ezer. Orain zuzendaritzako txanda da.

Honetatik irakasbiderik atera al dugu?

Zer edo zer ona atera beharko genuke. Denondako egoera berbera da hau, eta egoera hau guztion artean atera behar dugu aurrera; nik uste, azkenean, gauza onak aterako ditugula. Lehen guretzat arruntak ziren gauzak, garrantzirik ematen ez genienak, zein garrantzitsuak diren konturatu gara. Nire kasuan, denboraldi osoan barna bidaiatzen nabil eta orain nire familiarekin egotea polita da, eta aprobetxatu behar dut. Nire lagunekin ere denbora pasatzea espero dut, ahal denean haiek besarkatzea. Orain bideo-deien bidez dugu harremana baina espero dut beraiekin lehenbailehen egotea.

Kontaktu fisiko hori ez izatea gogorra da. Aipatzen zenuen taldeekin behar bezala ezin despeditu izana gogor egin zitzaizula.

Bai, pertsonak gara eta pena ematen digu horrek, baina gauzak horrela izan dira eta positiboki hartu behar dugu, eta kontzientzia hartu. Egoera oso zailak gertatzen ari dira, jende askok senitartekoak galdu ditu eta oso zaila da honi gauza onak ikustea. Guztia aldatu da, baina gutxika normaltasunera bueltatuko gara eta gertatutakoaz gauza asko ikasi beharko genituzke.



2021era atzeratu dute BTT Zeharkaldia.

BTT Altsasuko BTT Zeharkaldia bertan behera gelditu da

Barranka Txirrindularitza Taldea gogotsu ari zen prestatzen ekainaren 14an jokatzekoa zen Altsasuko BTT Zeharkaldia, probak data borobila baitzuen, 25. edizioa. Penatuta, bertan behera utzi behar izan dute, "egoera honetan, ezinezkoa delako txirrindularien, babesleen eta boluntarioen erabateko segurtasuna bermatzea". 2021eko ekainaren 13ra atzeratu dute proba ez lehiakorra.



2014ko Vuelta Aralartik pasa zenekoa.

TXIRRINDULARITZA Vuelta urriaren 21ean helduko da Sakanara

Nazioarteko Txirrindularitza Batasunak (UCI), 2020ko egutegia aurkeztu zuen asteartean, puzzle oso konplexua osatu eta gero. Tartean, urriaren 20an Espainiako Vuelta hasiko da, Irun eta Arrate arteko etaparekin, eta hurrengo eguneko etapa, urriaren 21ekoa, Iruñean hasi eta Urbasatik Sakanan sartuko da, Aralarko pista igo eta Lekunberrin despeditzeko.

"Ilusioa piztuko duen taldea" sortzera

ARETO FUTBOLA Araçak, Rafa Usinek, Dani Saldisek, Martelek, Mariok eta Llamasek Osasuna Magna utziko dute, baina Tatonok Arregik lasaitasun mezua luzatu die zaletuei. Federazioak play-offak jokatu direla erabaki du eta horretan murgilduko da taldea

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Lirikarendako ez omen dira garai onak. Ezta kirolarendako ere. Astelehenean Osasuna Magna Xotako presidente Tatonok Arregik prentsurreko telematikoa eskaini zuen eta talde berdeko etorkizun hurbilaz mintzatu zen. Orduan 2019/2020ko ligarekin zer gertatuko zen ez zegoen argi. "Badirudi liga erregularra despeditutzat emango dela eta lehendabiziko 8 taldeek titulua erabakitzeke play-offak jokatu dituztela, formatu azkarrean eta egoitza bakarrean" aipatu zuen Tatonok. Talde irurtzundarra 6. postuan dago, play-off postuetan, eta partida horiek prestatzen hasi beharko du, Futbol Federazioak play-offak jokatu direla berretsi baitzuen asteazkenean. Publikorik gabe jokatu dira, eta litekeena da Las Rozasen izatea. Oraindik ez dira datak zehaztu eta entrenatzeko arazoak ditu Xotak, Anaitasuna itxita dagoelako.

Talde berria, Imanolen esanetara Bestalde, talde berdeak 6 baja izango dituela baieztatu zuen presidenteak. Araçak, Rafa Usinek, Dani Saldisek, Martelek, Mariok (Betisekin kontratua du eta hara itzuliko da) eta Llamasek, azken honek arrazoi pertsonalak



Xotako presidente Tatonok Arregik bideokonferentziaz eman zituen argibideak. XOTA

argudiatuz, taldea utziko dute. Xotan emandakoa eskertu zion Tatonok. Baja garrantzitsuak dira, baina presidentek lasaitasun mezua zabaldu zion zaletuei. "Gure zaletuek lasai egon daitezela; gure burua "berrasmatzea" dagokigu berriz eta ilusioa piztuko duen talde gaztea sortuko dugu. Horretan gaude. Egoera konplexuetatik sendoago ateratzen gara" nabarmendu zuen. Imanol Arregik taldea zuzentzen jarraituko du, eta ahalegina eskertu zion Tatonok. "Gure frankizia da, klubeko baloreen era-

kuslea. Proiektu honen oinarrietako bat da, lan egiten ari garen guztiaren erakusgarri. Proposamen asko baztertzeko ari da, eta berak taldea utziko balu, hutsune hori izugarri nabaritu genuke" aitortu zuen.

Garai zailak datoz, baina Tatonok nabarmendu zuen Osasunarekin duten akordioa 2021era artekoa dela eta taldearen egungo babesleek eurekin jarraitzeko asmoa dutela. Halaber, hurrengo urteko jantzi berria aukeratzeko 5 kirol-etxeren eskaintza aztertzen ari direla gaineratu zuen.

kaxeta
LIBURUDENDA

Bizilagunei zerbitzua emanez

Ordutegi berria
07:00-12:00

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

PORTUKO

okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763

Sakanan bizi eta lan, nolako erronkak ditugu?

Sakanako Garapen Agentziak gaiaren inguruko hausnarketa prozesua abiatu du eta idatzizko iritzi eta analisiak jaso eta webgunean publikatuko ditu. Sakanako eragileei eta herritarrei euren ekarpena egitea eskatu die

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoa 2014-2020 eskualdeko eragileek adostutako bide orria da, "jendartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspuntutik lanpostu iraunkorrak sortzeko baldintzak sustatzeko" helburua duena. 2019an Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak (SSB) bultzaturik, eta ordura arte egindako bidea baloratu eta aurreikuspen berriak txertatuz, planaren eguneratzea onartu zen. Egun, COVID-19 birusak sortutako osasun-krisian murgilduta gauden honetan, Sakanako Garapen Agentziak (SGA) hausnarketa baten beharra ikusi du.

"Egunetik egunera kontzientzia handiagoa hartzen ari gara birus honek izango duen inpaktu sozioekonomikoaz. Etorkizunaren inguruan ziurgabetasuna handia bada ere, egungo errealitateak funtsezko eraldaketa bat biziko duenaren inguruan adostasun zabala dagoela esan dezakegu. Inork ezagutzen dez duen lurralde berri batean sartzen ari gara. Guk helmuga argi dugu: Sakanan bizitzea eta lan egitea, eta bertara iristeko iparrorratza ere bai, komunitatearen aktibazioa eta elkarlana. Baina bidea egiteko orain arteko mapek balioko al digute?" dio SGAko Iker Manterolak.



Egungo egoerarekin Sakanako Sozio-ekonomia Behatokia ezin da elkartu.

Horregatik, hausnarketa prozesua abiatu nahi du SGAk. "Zalantza asko daude. Zeintzuk izango dira errealitate berriaren gakoak? Nola eragingo digu krisi honek? Zein erronka, arrisku eta aukera berri aurkeztuko zaizkigu? Zein tresna eta ekimen beharko ditugu erronka horiei erantzuteko? Erronkaren konplexutasunak eta neurriak ezinbestekoa egiten du adimen kolektiboa abian jartzea" ondorioztatu du SGAko kideak.

Hausnarketa horretan, Sakanako Sozio-ekonomia Behatoki-

ko eragileen ekarpenak eta Sakanako herritarren iritziak jaso nahi ditu SGAk. Egungo egoeran Behatokia fisikoki elkartu ezin denez, hausnarketa prozesua idatzizko iritzi eta analisi artikulatu laburren bidez egitea proposatu du SGAk. Prozesu telematikoan parte hartu nahi duten eragileek eta sakandarrek euren proposamenak SGAra bidali beharko dituzte (info@sakanagaratzen.com), eta ondoren agentziako webgunean publikatuko dira (<https://labur.eus/pLaMa>), guztion aztergai.

ko dira. Autoa aparkalekuan utzi eta bulegotik pasatu beharko da. Hara sartzerakoan, derrigorrezkoa izango da eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea, eta gomendagarria da maskara eramatea. Pertsona bakarra sar daiteke bulegoan, gainontzekoek aparkalekuan itxaron beharko dute konposta kargatzera joateko baimena izan arte. Eta, jakina, segurtasun distantzia mantenduko da beti. Zalantzak argitzeke edo galderak egiteko 900 730 450 doako telefonora hots egin.

Fagamendiko trikuharriko kalteak ikertzen

Zehapen-espeditentea irekiko diote trikuharrian kalteak eragin dituen baso-lanen enpresari

ETXARRI ARANATZ

Etxeko itxialdia arintzeko neurriak indarrean sartu den aurreneko egunean haizatzeko beheko basora joan eta baso lanek ezusteko desatsegina utzi zutela jabetu ziren mendizale batzuk: Fagamendiko trikuharria hondatuta, haren berri ematen duen panela zutik, Trikuharrien Ibilbideko markak desagertuta eta makinaren joan-etorriek xenda bera desagerrarazita.

Udalak gaztigatuta, herenegun Fagamendin izan ziren Ingurumen saileko basozainak, Seproko kideak eta Ondare Historikoaren Zerbitzuko arkeologoak eragindako kalteen lehendabiziko balorazioa egiten. Basozainek ikuskapen-aktan jaso dutenez, enpresaren makina astunak harritzko tumulu baten gainetik pasatu ziren, eta ondorioz haie-tako batzuk hondoratu eta beste batzuk mugitu eta tokiz aldatu ziren. Hala, trikuharriak bere jatorrizko formaren parte bat galduko zuteen, eta lur-arrastoak eta zuhaitz-adarrak geratuko ziratekeen inguruan. Basozainek aktan gaineratu dutenez, "gainenetik pasatzea ez zen inondik inora beharrezkoa", eta azpimarratzen du monumentu megalitikoak ondo-ondoan duela bere izaera azaltzen duen interpretazio-panela. Makinak pasatu ondoren, eremua zigilatuta dute, plastikozko zintaz inguratuta.

Udalak azaldutakoa berretsi dute basozainek: "trikuharri horren kokapena, baita udalerriko Trikuharrien Ibilbidean dauden beste batzuen ere alde aurretik adierazi zitzaion baso-lanen esleipena zuen enpresari". Gaineratu dutenez, "enpresari bai basozainek eginiko entrega-aktan, bai Baso Kudeaketa Atalaren baldintza-orrian ere" trikuharrien kokapenaren berri eman zitzaion. Orain eginiko kalteak balora ditzaten.



Lakuntzako udaletxean pintada.

Pintadak garbitzeko aurrekontua eskatuta

Udaletzeko arkuan egindakoan pintura berezia erabili zen, eta gainontzekoetan sprai

LAKUNTZA

Lakuntzako udaletxean, elizan eta parrokiako apaizaren etxean pintadak agertu ziren larunbatean, eta haiek garbitzeko asmoa dute udalak eta parrokiak. "Udaletzeko pintada egiteko erabili zuten pintura berezia da. Brotxarekin egindakoa dirudi. Elizakoak, aldiz, spraiarekin eginak daude. Pikota zaharberritu zuen enpresarekin harremanetan jarri gara aurrekontua eskatzeko, baina pintada kentzea kostatu egingo da. Udaletzeko arkuan bertan egin zuten, eta arkua babestutakoa den ala ez begiratu beharra dago ere" azaldu du Aitor Gartziaik. Foruzainak izan ziren larunbatean bertan pintadak ikusten. "Ez dugu momentuz salaketarik jarri, informatu egin dugu, beste herriren batean pintadarik egon ote zen jakiteko, edo beste herriren batean pintura agertuko balitz horren berri izateko" gaineratu du zinegotziak. Udaletxean "Zergatik hezten gaituzue?" ("¿Por que mierda educarnos?") idatzi zuten, elizpean gaztelaniaz ere "Katolizismo = Koronabirus" idatzia dago. Azkenik, apaiz-etxean "beldurra bandoz aldatuko da" leloa irakur daiteke, hori ere gaztelaniaz idatzita.

Sakanako konposta jasotzeko garaia heldu da

Astelehenetik, hondakindegian, 09:00etatik 14:30ak arte. Familia bakoitzeko 3 zaku konpost eraman ahal dira, doan

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak materia organikorekin konposta egiten du Arbizuko hondakindegian. Sakandarrek konpost hori dohain eskuratu dezakete astelehenetik, hondakindegian.

Etxebizitzako hiru zaku eraman ahal dira. Mank-etik azaldu dutenez, gomendagarria da norberak bere zakuak eramatea han bertan konpostarekin betetzeko.

COVID-19 gaitza dela eta, segurtasun neurriak hartu behar-



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Diosal keinuak

Agidanez, denbora baterako urruntze soziala -harreman sozialetan elkarrekiko distantzia fisikoa- mantendu beharko dugu koronabirusaren (COVID-19) transmisioa gelditzeko. Baina, geure izatea goitik behera aldatu behar ez badugu behintzat, gure behar afektiboak ere asetu beharko ditugu, eta distantzian kontaktu fisiko horren ordaina asmatu, adostu...

Gure giza harreman guztiek ez dute sakontasun afektibo eta intimo bera eta bakarra, pertsona batzuekin harreman estuagoak, gertukoagoak ditugu, etxekoekin, bizikideekin, bikoteekin... Haiei musuak, laztanak eta besarkadak ematen jarraituko dugu, orain artio bezala, hori baldin bazen etxeko ohitura.

Lagunak ere baditugu, baina ez denak maila berekoak, alegia, batzuk lagunago dira: lagun minak, lagunak, ezagunak. Lagun minei, orain, ezin ba bi musu eman edo besarkatu; apika, batzuekin ez ditugu horrelako keinuak behar, elkar begiratzea nahikoa baitugu gertutasuna adierazteko. Dena dela, diosal egiteko hitzez gain, keinuren bat behar izanez gero, kideari bi musu eman orde, geure buruari musu bakarria ematea izan daiteke aukera bat. Horrelako keinuren bat: eskubiko eskua (garbia, noski) ezkerreko masailean jarri (ezkerrek alderantziz egin dezakete) eta ezpainekin musu emateko imintzioa egin, hots eta guzti (mutx, muts). Edo besarkada irudikatu nahi badugu, horren keinuak egin, bi besoekin besarkada elkarri emanen bagenio bezala.

Urrunago sentitzen ditugun lagunekin, bestalde, zer diosal erabiliko dugu orain artio bi musu protokolarior horien orde? Elkar begiratu, irribarretsu agertu, buruarekin goraka keinu bat egin eta Aupa! Zer moduz? esan.

Pertsona berriak ezagutzea ere egokituko zaigu. Abagune aproposa izan daiteke orain arteko bi musu edo eskua ematearen orde, beste keinu batzuk adosteko eta mundu guztiarekin berdin jokatzeko. Dantzariak aurrekuaren bukaeran egiten duten diosala gustatzen zait; elkar begiratu, burua pixka bat makurtu, eta nahi izanez gero, eskuarekin zabaltasun pixka bat eman. Keinua bera erabil dezakegu protokolozko ekitaldietan, jende desberdinarekin bat egin behar baldin badugu eta elkarri agurtu behar baldin badiogu.

Hiletan eta beste egoera batzuetan ere nola egin pentsatu beharko dugu. Momentuz, doluminak adierazteko hitzak baditugu, bi musuen eta besarkaden ordekorik, ordea, ez. Zer erabiliko dugu?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

SOSPRESOAK COVID-19

LIBERTAD FRANCÉS (SALHAKETA NAFARROA), XOXITL KARASATORRE (ETXERAT), ANTXON RAMIREZ DE ALDA (ALTSASUKO GURASOAK) ETA MIKEL MUNDIÑANO (SARE HERRITARRA)

Covid-19ak sekulako osasun-krisia eragin du, eta, pertsonen osasuna babesteko premia dela eta, herrialde guztiek denon bizimodua zeharo aldatu duten erabakiak hartu dituzte. Espetxeen arloan ere, nahiz eta arlo honetan aldaketak eta, are gehiago, aurrerapausoak, beti amaieran iristen diren, erabaki garrantzitsuak hartzen ari dira munduko herrialde askotan. Estatu askotan neurriak hartu dira kartzelan dauden milaka eta milaka preso aske uzteko. Zoritxarrez, ez da halakorik gertatu Espainiako Estatuko Gobernuaren kasuan. Hemen, espetxe politikaren arloan, neurri bakarria hartu da, kartzelak bakartzea, alegia.

Espainiako Estatuko 70 gizarte-eragilek baino gehiagok behin baino gehiagotan eskatu dugu, beste neurri batzuen artean, presoak aska ditzatela, hori delako neurririk onena espetxeetan Covid-19aren kutsatzei aurrea hartzeko eta preso osasunerako nahiz bizitzarako eskubidea bermatzeko. Alde horretatik, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Komiteak (TPK) ere eskatu diete estatuei neurriak har ditzatela espetxeen arloan, lehentasuna espetxeetako

populazioa nabarmen murrizteari emanez.

Nafarroako herritar guztiei, instituzioei, gizarte-eragile, sindikal eta politikoei dei egiten diegu bat egin dezaten Espainiako Gobernuari honakoa exijitzearrekin: lehenbailehen diseinatu eta gauzatu dezan espetxe politikaren arloko plan bat, honen bidez, OMEk eta Europako Kontseiluko CPTk emandako gomendioak bete ditzan.

Era berean, eskatzen dugu berma dadila preso eta haien familiakoen eta gertuko arteko komunikazioa, bideokonferentzien doako

sistema abian jarritz. Eskatzen dugu, halaber, preso bisitak berriz has daitezela, eta, horretarako, beste espetxeetara joan-etorriak egitea baimendu beharko da, edo jatorritik gertuko karteletara ekarri preso nafar guztiak edo Nafarroan errotuta daudenak, gaur egun beste kartzela batzuetan preso daudenak, hala nahi badute.

Egoera honetan borondate politikoak agintzen du, eta, orain inoiz baino gehiago, borondate politikoak herritar guztien osasunaren eta bizitzaren zerbitzuan egon behar du, baita preso kasuan ere.



OBJEKTIBOTIK



Altsasuko Gaztetxea
@AltsasukoGA

Gora Alde Zaharreko #EuskalJaiak!

#AldeZaharrekoAGA



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketazalea:
Irene Trece Obeso
maketazalea@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
eta Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Nire leihotik txorien kantua aditzen dut

Txori batek zerua zeharkatzen du kirola egitera atera direnen buruen gainean. Erreken eta soroen gainetik, Beriain mendia imajinatzen dut, nire etxetik, askatasunean. Eta haitzaren eta uraren erreinuan piramide handi horretatik harroturik ibarrera jaisten diren ur-jauziak irudikatzen ditut.

Umeen barre algarak entzuten ditut kalearen beste aldean. Beren gurasoren batekin daude eta jolasean ari dira pilota txiki batekin. Etxeratze ordua dutela pentsatu dut, dagoeneko ilargia eta eguzkia batera ikusten baitira hodeiez beteriko zeruan. Kilkerak hasi dira kantatzen, haizea nire aurpegian sentitzen dut.

Egunaren azken eguzki izpi txikiak nire balkoiraino ailegatzen dira eta maite-maite egiten didate azalean. Konfinatua nago, eta hala ere familia dut ondoan, erosketak egitera joan naiteke, zakarra zakarrontzira eramanez, txakurrarekin paseatzera atera naiteke, mugi naiteke leku batetik bestera kirola egitera, nahiz eta normalean kirolik ez egin.

Eta orduan, haien irudia etortzen zait burura. Duela

bi urtez konfinatuta daude. Ezin dira dauden lekutik mugitu ezta zakarra zakarrontzira botatzeko ere. Ezin dira balkoira atera eguzki izpi batez goatzeko, balkoirik ere ez dutelako, kasurik onenean barroteez beteriko leihatila zikin bat. Ezin diote paseo bat eman beren txakurrari. Ezin dituzte anai-arreba txikiak parkera atera. Ezin dute aitona edo amona zaindu. Ezin dute bisitarik izan.

Lehen garrantzirik gabeko gauzarik sinpleena iruditzen zitzaiquina ezinbestekotzat jotzen dugu gaur. Konfinamenduko hainbat egunen ondoren nekea guztioi nagusitzen zaigun arren, haiengandik zer ikasia dugu.

Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik beren burmuinetan lainotzen hasiak zeuden paisaiak berandu baino lehen berreskuratuko dituztela badakite eta barnebarnean gordetzen dituzten ametsek beste egun bat gehiago itxialdian eusteko adina indar ematen diete.

Errepika ditzatela eliz dorreko ezkilak haien omenez, atera daitezela fanfarreak kalera..! Aurrera goaz, inork ez gaitu geldituko!!!



Opazank bideo lehiaketa martxan

Sakanako hizkeran eta taldeka bideoak egiteko lehiaketa martxan jarri du Sakanako Mankomunitateak

SAKANA

Opazank! Sakanako hizkeren 2. bideo lehiaketa aurkeztu du Sakanako Mankomunitateak. Sakanako edozein taldek edo kua-drillak parte har dezake, eta ez dira bakarkako lanak onartuko. Gainera, bideoak Sakanako hizkeran eginen dira edo Sakanako hizkerako hitzak eta esamoldeak erabiliko dira. Bideo bakoitzak gehienez 10 minutuko iraupena izanen du eta gaia libre da. Talde bakoitzak nahi adina bideo aurkez ditzake. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 29a izanen da. Sariak Sakanako dena edota jatetxe batean erabilitzeko 300, 200 edo 100 euroko txartelak izango dira, hurrenez hurren.

Bideoak euskara2@sakanamank.eus helbidera bidaliko dira Wetransfer bidez.

ZORION AGURRAK



Presoei agur eta besarkada bat
Animoak denoi! Altsasuko preso eta Euskal Herriko preso guztiak eta iheslariak askatu. Etxera lehenbailehen!



DUELA 25 URTE...




Haurrendako mendi-ibilaldi neurtua

Naturarekin harremana eta kirola sustatu asmoz antolatuta zen. Altsasu, Urdiaingo igerilekuak, Sarabe, Uletxe eta Altsasu. Hiru ordu eta erdiko ibilbidea egin zuten ia 200 hurrek. Irurtzungo, Lakuntzako, Etxarri Aranazko, Altsasuko, Tuterako, Aguraingo eta Beasaingoak ziren haurrak. Akaberan zozketak izan ziren. Parte-hartzaileak hiru minutuko tartearekin abiatu ziren. Altsasuko Mendigoizaleak antolatu zuen eta Nafarroako Kirol Institutuak eta Sakanako Kirol Batzordeak diruz lagundu zuten.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 8




Larunbata, 9



Igandea, 10



Astelehena, 11



D **N** **DEKOVEN NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazaren itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Altsasu, asteburuetan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

LEHIAKETAK

Etxarri Aranazko abesbatzaren 50. urteurrenaren logotipo lehiaketa:

Edonork parte har dezake. DIN A4 formatoan (ordena gailuz edo eskuz eginda), gehienez bi lan aurkez daitezke. Saria 150 euro. Lanak uztailearen 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 tfnoan.

TAV-Demiaren aurkako Bideo-sorkuntza lehiaketa:

Bideoak bidaltzeko epea maiatzaren 10ean amaitzen da. Oinarriak hurrengo blogean: <http://noaltavahtgelditu.blogspot.com/>

OHARRAK

Egunean Behin jokora jolastu nahi?

Euskarazko galde-erantzunen jokoa da Egunean Behin, telefono mugikorreko aplikazioa. Eguneroko 10 galdera erantzun behar dira. Gainera, taldeak sortu daitezke eta ingurukoekin zure jakituria neurtu. Dagoeneko eginak dauden taldeetan sartzeko giltzak behar dira. Honako ibarrek taldeen giltzak: Sakana 2B2160, Lakuntza B C 9 7 D 3, B a k a i k u 1C2051, Urdingo Herria A253A9 Altsasu C5FD3D Ziordian CBBAF8. Jokoa-ren laugarren denboraldia garilaren hasierara arte izanen da.

Amaraua zozketa:

Ziordiko gune autogestio-natuko kolektiboak erai-kina erosteko aukera du. Erosketan laguntzeko zozketa antolatuta dute: produktu ekologikoen saskia eta 10 lagunenda-ko asteburu pasa Ama-

raunan. Zozketarako txartelak Bizun aplikazioaren bidez erosi daitezke 653 468 741 telefono zenbakian (kontzeptu gisa norberaren mugikor zenbakia jarri txartelaren argazkia bidaltzeko). Txartel bakoitzak 2,5 euro balio ditu. Txartel erosleak zenbakiaren berri whatsapp bidez jasoko du. Bizumik ez dutenek eta txartela nahi dutenek 679 553 734 telefonora hots egin dezake. Zozketa maiatzaren 10ean Amaraunaren Instagram eta Facebook profiletan.

Elkartasun sareak:

koronabirusak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko elkartasun sareak eratu dira herrietan. Haiekin harremanetan jartzeko moduak dituzu hurrengoak: Irurtzunen, udaltzeko bulego ordutegian 948 500 051 telefonoa, eta hortik kanpo 618 636 199. Etxarri Aranatz hots egin 673 319 557 edo 671 603 012 telefonoetara. Bakaikun 622 268 161 da markatu beharreko telefonoa eta botiketarako 948 563 450 edo Whatsapp bidez 657 702 178. Altsasun 640 044 424 telefonora hots egin edo altsasukogazteasanblada@gmail.com e-postara idatzi daiteke. Lakuntzan 650 866 423 tfnoan edo lakuntzaelkartasunarea@gmail.com e-postan. Arakilen 948 500 101 – 622 297 961 tfnoetan eta info@arakil.net e-postan. Azkenik, Arbizun 675 894 913 tfnora deitu edo idatzi al-katea@arbizu.eus posta elektronikora.

Urteurren aldizkaria:

Aurten Altsasuko Gazteria Zerbitzuak 25 urte betetzen ditu eta Intoxositapunta gazte guztiak 10 urte. Urteurrena ospatzeko aldizkaria sortuko dute, zerbitzuaren historia memoria izanen dena. Baina, aldi berean, Gazteria Zerbitzuak etorkizunetan landu beharko dituen esku-hartze ildoan gainean gogoeta egin nahi da. Aldizkarirako iritziz,

artikulu, argazki edo ideiak eman nahi dutenek honako bideak erabili beharko dituzte: intoxositapunta@altsasu.net, gazteria@altsasu.net emailletara idatziz, edo 608 617 778 - 948 564 785 telefonoetara deituz.

Bakaikuko epaitzak:

Egur-lotea nahi duenak maiatzaren 15a baino lehen izena eman behar du Udaltzeko postontzian papera utziz, udala@bakaikueus.com helbidera mezu bidaliz edo 948 562 509 – 681 181 308 telefonoetara deituz. Ordainketa lotea banatzeko orduan egin beharko da. Lotearren prezioa 20 euro. Bakaikuko Udala.

Arakildar guztientzako yoga klaseak:

Arakildo Udalak WhatsApp bidez 12 herrietako profiletan yoga bideoak zabaltzea erabaki du. Asteleheneta eta ostegunetan 12:30ean eta Argimallutakena asteartean eta ostiralean 10:30ean.

Uharte Arakilgo festetako zapia:

Udalak herrian erroldatuta dauden eta joan den urtean jaiotzen zirenen umeei festetan zapia banatuko zaie. Erroldatuta ez dauden familiek eta festetako ttattarra hartzeko interesa dutenek, garagartzaroen 5era arte eman dezakete izena info@uharterakil.com e-posta helbidera idatziz.

Gazte Karnetaren 30. urteurrena dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpeki- Txartela oparitzen ari die.

Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte-mugikortasun programetarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpeki-de Txartela oparitan jaso nahi duenak www.juventudnavarra.es/eu/hasiera web gunearen bidez egin dezake eskaera

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA

Santiago Vilches Sanchez

-Goian bego-



Haria ez dago moztuta heriotza ez da ezer ibaiaren bestaldera pasatu naiz, besterik ez

Zure lankideak

Altsasu

OROIGARRIA



Fermin Razkin Zubillaga

II. urteurrena

2018ko maiatzaren 6an hil zen

Beti gure bihotzetan egongo zara

Zure familia



JAIOTZAK

• **Eguzki Begiristain Asensio**, apirilaren 26an Etxarri Aranatz

HERIOTZAK

• **Ignacio Aseginolaza Asurmendi**, apirilaren 28an Iturmendin
• **Catalina Diaz Menendez**, maiatzaren 4an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus



IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

"Herrietan bizi garenok piztiak ez ditugu urruti"

Sugegorriak Altsasuko herrigunetik gertu, suge hori-berdeak Arruazun... Gizakiak etxean geratu direnez, animaliek kaleak hartu al dituzte? Asun Berastegi Gartzaiandia biologo arbizuarrak ez dela hain arraroa azaldu du

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

1 Zer gertatzen ari da?

Gai hau denon ahotan dago. Herrietan sekulako isiltasuna dago, oso zarata gutxi dago. Batetik industriak duelako zarata ateratzen; bestetik, askoz kotxe gutxiago dabilelako errepideetan eta, gu ere etxean gaudelako. Beraz, ez ditugu piztiak ikaratzten. Egun hauetan oso adibide ikusgarriak iritsi zaizkit. Sugegorri bat aurkitzea ez da hain arraroa, baina Asturiasko herri batean hartza ikusi zuten, gauez, baina herrian bertan. Valladoliden, hirian, orkatzak ikusi zituzten eta Palentziako herri batean otsoa. Baina ez dugu ahaztu behar garai honetan piztiak ikustea ez dela bereziki arraroa. Garai honetan mugimendu asko egiten dituzte animaliek.

2 Gehiago gerturatzen al dira orain?

Isiltasun eta lasaitasun hori dagoenez izan daiteke gehiago gerturatu direla eta gehiago nabaritzen ditugula. Belarra gutxiago moztu da ere. Leku horiek aproposak dira sugeak eta sugegorriak egoteko. Baina urtero izaten ditugu. Eguneroko mugimenduetarekin ez ditugu ikusten. Orain gertatzen dena da zu za-



Asun Berastegi Gartzaiandia biologo arbizuarra. UTZITAKOIA

rela pasatzen zaren lehena, lasaitasunarekin ez dira konturatzen, eta ez die ezkutatzeko denborarik ematen.

3 Zein beste animali gerturatu daiteke Sakanako herrietara?

Azeri bat, basurde bat, ez litzateke harriztekoa izango... baita txoritxoak ere. Normalean txolarrak ikusten ditugu gehien bat herrietan, eta agian beste txori mota batzuk ikusteko, normalean basora joan behar gara, gehiago

gerturatzen dira; kaskabeltzak edo txantxangorriak, esaterako.

4 Txoriak gehiago entzuten dira ere, ezta?

Askoz gehiago. Kukutxoria udaberrian etortzen da eta etxetik bertatik entzuten ari naiz ni, eta basoa kilometro batera dago. Beste urte batzuetan ez dut entzuten. Horrek erakusten du isiltasunaren efektua. Oso nabaria da.

5 Pizti batekin elkartzean, zer egin behar da?

Normalean haiek alde egingo dute. Piztiak irteteko beste tokirik ez daukan toki batean ez egotea aholkatzen da. Egon daitekeen momentu arriskutsuena hori izango da, alde egiteko tokia ez badu aurkitzen. Sugeekin ere arretaz ibili behar da.

6 Konfinamenduari esker, ekosistema aldatu al daiteke? Goizegi al da esateko?

Tarte txikia izan da aldaketa nabariak izateko. Luzerako balitz, seguru baietz. Ugalketa sasoi oso batean gertatuko balitz, datorren urtean kume gehiago aterako lirarteke eta kasu horretan izan daiteke aldaketa ematea.

7 Landaretzak konfinamendua nabaritu al du?

Lasaitasun hori orokorrean nabaritu da. Belardiak basatitako egon dira eta landareen loraketa aurten ikusgarria izango da, leku askotan ez delako zapaldu, ez garelako hortik ibili eta ez delako moztu. Bide bazterretako belardi horiek, niri ikertzea gustatzen zaizkidanak udaberri honetan bereziki politak egongo dira. Dena naturalago egongo da.

8 Natura bere horretan dago.

Beste efektu bat gertatu da ere. Etxetik atera gabe egon garenaz, naturarekiko eta gure inguruarekiko sentsibilitate gehiago irabazi dugula uste dut. Gehiago baloratuko dugu.

9 Eta zer egin dezakegu natura horrela mantentzeko?

Sentsibilitate hori ez galtzea. Inguruan daukagunaz kontzientzia izan eta onura egiten digula konturatzea. Horretaz kontzientzia izan behar dugu, eta pixka bat gehiago begiratu.

10 Konfinamendua luzatuko balitz, zeintzuk izan zitezkeen ondorioak?

Ez dugu hausnarketa sakonik egin tarte motz bat izango zela pentsatu dugulako. Konfinamendu garai honetan onura asko izan ditugu; kutsaduraren aldetik atera dituzten datuak ere ikusgarriak izan dira. Baina nik eta nire arlokoek gizartea aurreko egoerara itzultzeko irrikitan dagoela ikusten dugu. Alde horretatik etsipen apur bat daukagu. Hau pasatu ondoren pentsatzen genuen baietz, orain gauzak aldatuko zirela. Baina, dena ahaztu eta aurrekora bueltatu nahi dugula ikusten dugu. Badirudi ez dugula ikasi.

11 Hausnarketarako tarte izan beharko luke egoera honek, ezta?

Bakoitzak, bere bizimoduari eta bere lehenetasunei buruzko hausnarketa egingo zuen, baina gizarite mailan aurreko egoerara itzuli nahi dugula dirudi; ahaztu dezagun hau guztia, ez dago arazorik, eta goazen aurrera.



ESKOLA AGENDAK ETA IRAKASLE KOADERNOAK

prest!

Eskatu zurea

618 640 056 • gk@gkomunikazioa.eus • Foru plaza, 23-1. Altsasu



DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA